EDIKTUA, 2007ko irailaren 5ekoa, Lan eta Gizarte Segurantza zuzendariarena, «Pak Lasani, SL» enpresari 07.0204.48.02.01.02 espedientearen gainean hartutako ebazpena jakinaraztekoa. 23032

HERRIZAINGO SAILA

IRAGARKIA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoarekiko arau-hausteak direla-eta irekitako eta beherago zehaztutako zehapen-espedienteen instruzio-egileak, Segurtasun Sailburuordetzaren Kabineteko zuzendariak, emandako ebazpen-proposamenak jakinarazteko dena. 23034

Pribatuen Iragarkiak

ITELAZPI SA

IRAGARKIA, Aramaion (Araba) eta Eskoriatzan (Gipuzkoa) Murugaingo Aterpez Kanpoko Transformazio-Zentrorako (100 kva) airetiko linea elektrikoa, 13.200 voltekoa, aldatzeko kontratua egitekoa. 23035

SPRI, S.A

IRAGARKIA, Industri Sustapen eta Eraldaketarako Sozietatearena, (SPRI. S.A) EAEko enpresetan berrikuntza proiektuak gauzatzeko laguntzak arautzen dituena. Aldatu Programa. 23035

EDICTO de 5 de septiembre de 2007, del Director de Trabajo y Seguridad Social, por el que se notifica a la empresa «Pak Lasani, S.L.» la resolución recaída en el recurso n.º 07.0204.48.02.01.02. 23032

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

ANUNCIO por el que se notifican las propuestas de resolución del Director del Gabinete de la Viceconsejería de Seguridad, instructor de los expedientes sancionadores que abajo se indican, incoados en relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana. 23034

Anuncios Particulares

ITELAZPI, S.A.

ANUNCIO para la contratación de la modificación de línea eléctrica aérea a 13.200 voltios para el Centro de Transformación de Intemperie (CTI) de Murugain (100 kva) en Eskoriatza (Gipuzkoa) y de Aramaiona (Álava). 23035

SPRI, S.A.

ANUNCIO, de la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial (SPRI), S.A., por el que se regulan las ayudas para la realización de proyectos de innovación en las empresas de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Programa Aldatu. 23035

# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 5545

172/2007 DEKRETUA, urriaren 9koa, irakaskuntza euskaraz eman izana eta zein epetan eman zen frogatzeko ziurtagiria arautzekoa, Gizarte Segurantzan kotizatu modura aitortze aldera.

Abenduaren 28ko 42/2006 Legeak, 2007. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarrian ebatzitakoaren arabera, Gizarte Segurantzari kotizatutzat joko dira euskaraz irakasten jardun izan zuten eta, jarduera horiek

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 5545

DECRETO 172/2007, de 9 de octubre, de regulación de la certificación acreditativa del ejercicio de la actividad docente en euskera y de los periodos en que se desarrolló, a efectos de ser reconocidos como cotizados a la Seguridad Social.

En virtud de la disposición adicional quincuagésima quinta de la Ley 42/2006, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2007, se considerarán como cotizados a la Seguridad Social los períodos de dedicación a la actividad docente en eus-

klandestinoak izateagatik, Gizarte Segurantzaren sistemari altan eman ezin zitzaizkien pertsona horiek euskarazko irakaskuntzari eskainitako aldiak. Aitorpen horrek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorio ekonomikoak izango ditu.

Aipatutako xedapen gehigarriak aplikatzeko behar ziren arauak emateko eskuduntza ematen zion Gobernu Zentralari, sei hilabeteko epean, indarrean sartu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Habilitazio hori betez, 2007ko uztailaren 13ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara eman zen ekainaren 15eko 788/2007 Errege Dekretuak, euskarazko irakaskuntzari eskainitako aldiak Gizarte Segurantzari kotizatutzat jotzeari buruzkoak, 2.1. artikuluan hau esaten zuen:

«Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak Gizarte Segurantzari kotizatutzat joko ditu aurreko artikuluan aipatzen diren lan-jardueraren aldiak, interesatuaren eskariz, betiere beste kotizazio-aldiekin bat ez badatoz.

Irakaskuntza-jardueran ari izanaren eta gauzatu zen aldien ziurtagiri bat, Euskal Autonomia Erkidegoko edo Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntzaren arloko organo eskudunak emango duena, aurkeztu beharko da eskaerarekin batera».

Komenigarria da, beraz, ziurtagiri hori nola eman behar den eta zein baldintzatan zehaztea.

Horren arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoak, agintzen dituen tramiteak bete ondoren, lehendakariak aldez aurretik onartu ostean eta Gobernu Kontseiluak, 2007ko urriaren 9an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren,

EBATZI DUT

*1. artikulua.–* Helburua.

Ekainaren 15eko 788/2007 Errege Dekretuak, abenduaren 28ko 42/2006 Legearen, 2007. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoaren, berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarria garatzeko emandakoak, ziurtagiria emateko 2.1. artikuluan aipatzen duen prozedura arautzea du Dekretu honek helburua.

*2. artikulua.–* Aplikazio-eremua.

Euskal Autonomia Erkidegoan 1978ko abenduaren 29a baino lehenago profesionalki euskaraz irakasten ari izan ziren eta, jarduera horiek klandestinoak izateagatik, Gizarte Segurantzaren inolako erregimenetan sartu ezin zitzaizkien pertsonei eman ahal izango zaie ziurtagiria.

kera de aquellas personas que realizaron dicha actividad profesional sin poder ser dadas de alta en el Sistema de la Seguridad Social como consecuencia de la clandestinidad en la que se desenvolvió dicha actividad. Los efectos económicos de este reconocimiento se producirán a partir del 1 de enero de 2007.

La citada disposición adicional facultaba al Gobierno central para que, en el plazo de los seis meses posteriores a su entrada en vigor, dictara las normas necesarias para su aplicación. En cumplimiento de dicha habilitación, el Real Decreto 788/2007, de 15 de junio, sobre reconocimiento de los períodos de dedicación a la enseñanza del euskera como cotizados a la Seguridad Social, publicado en el Boletín Oficial del Estado de 13 de julio de 2007, señala en su artículo 2.1:

«Los períodos de actividad profesional a los que se refiere el artículo anterior, debidamente acreditados, se reconocerán como cotizados a la Seguridad Social por la Tesorería General de la Seguridad Social, a solicitud del interesado, siempre que no exista superposición con otros períodos de cotización.

La referida solicitud deberá ir acompañada de una certificación del ejercicio de la actividad docente y de los períodos en que se desarrolló, expedida por el órgano competente en materia educativa de la Comunidad Autónoma del País Vasco o de la Comunidad Foral de Navarra (…)»

Se hace conveniente, por tanto, establecer la forma y condiciones en que dicha certificación deberá ser emitida.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, cumplidos los trámites ordenados por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de Mujeres y Hombres, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 9 de octubre de 2007,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto regular el procedimiento de expedición de la certificación a que se refiere el artículo 2.1 del Real Decreto 788/2007, de 15 de junio, dictado en desarrollo de la disposición adicional quincuagésima quinta de la Ley 42/2006, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2007.

*Artículo 2.–* Ámbito de aplicación.

Podrá emitirse dicha certificación respecto de aquellas personas que, en la Comunidad Autónoma del País Vasco y con anterioridad al 29 de diciembre de 1978, se dedicaron profesionalmente a impartir enseñanza en euskera, sin posibilidad de ser incluidas en ningún régimen de Seguridad Social, como consecuencia de la clandestinidad en que se desarrollaron dichas actividades.

*3. artikulua.*– Eskaerak eta dokumentazioa.

1.– Administrazio eta Zerbitzuetarako sailburuordeari zuzenduko zaizkio ziurtagiriak lortzeko eskaerak eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4. artikuluan aipatzen dituen erregistro, egoitza, organo edo bulegoetan aurkeztu beharko dira. Horretarako, derrigorrean erabili beharko da eranskinean sartzen den formularioa.

2.– Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskaerarekin batera:

a) Nortasun-agiri nazionalaren fotokopia.

b) Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia, edo ez duela egiaztatzeko Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak emandako ziurtagiria.

c) Ziurtatzen den jarduera gauzatu izana frogatzen duen edozein agiria, hurrengo artikuluan adierazten den legez.

3.– Ondorengo hauek ez dute aurreko atalean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko: martxoaren 27ko 3/2002 Legeak, juridikoki normalizatu aurretik ikastoletan irakatsi zutenen aitortza eta konpentsazioari buruzkoak, eta maiatzaren 6ko 99/2003 Dekretuak, aitortuta izan diren aldietarako aurrekoa garatzen duenak, arautzen dituzten konpentsazioak lortu dituztenek; ikastoletan zerbitzuak eman ondoren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako zerbitzuak aitortu zizkien pertsona horiek, publiko bihurtutako ikastolen kasuan. Kasu hauetan, eskaeran zirkunstantzia hauek aipatze hutsa nahiko izango da, konpentsazioa edo aitortza lortu diren aldiak zeintzuk diren argi zehaztuz.

*4. artikulua.*– Egiaztatzeko bitartekoak.

1.– Zuzenbidean onartutako edozein bidetik egiazta daiteke irakasgaiak euskaraz irakatsi izana, ondorengoak esate baterako:

a) Bi lekukoren adierazpena, betiere eman omen ziren klase horietara joan ziren ikasleak edo haien gurasoak edo tutoreak badira.

b) Irakaskuntza gauzatu zen lokalaren jabearen edo irakaskuntza hori sustatu, antolatu edo kudeatu zuenaren adierazpena, betiere zirkunstantzia hau zalantzarik gabekoa bada.

c) Dekretu honen 3. artikuluaren 3. atalean arautzen ez diren puntuetan, haien ziurtagiria nahi duen zerbitzuak ikastetxearen titularrak zerbitzu-urtetzat aitortu izanaren egiaztagiria.

d) Lokal horren jabetza Eliza Katolikoarena edo beste pertsona juridiko batena bada, nahiko izango da lo-

*Artículo 3.*– Solicitudes y documentación.

1.– Las solicitudes de obtención de la certificación irán dirigidas al Viceconsejero de Administración y Servicios, y deberán presentarse en cualquiera de los registros, dependencias, órganos u oficinas a que se refiere el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, utilizando para ello preceptivamente el formulario que se incluye en el anexo.

2.– Junto con la solicitud, las personas solicitantes deberán presentar los siguientes documentos:

a) fotocopia del Documento Nacional de Identidad,

b) documento que acredite su número de afiliación a la Seguridad Social, o certificación expedida por la Tesorería General de la Seguridad Social de no poseerlo,

c) todo documento que sirva como prueba de haberse llevado a cabo la actividad objeto de certificación, según se indica en el artículo siguiente.

3.– No deberán presentar la documentación señalada en el anterior apartado: quienes hubieran obtenido las compensaciones reguladas en la Ley 3/2002, de 27 de marzo, relativa al reconocimiento y compensación a quienes impartieron docencia en ikastolas con anterioridad a su normalización jurídica, y Decreto 99/2003, de 6 de mayo, que desarrolla la anterior, para aquellos períodos que hubieran sido reconocidos; quienes habiendo prestado servicios en ikastolas les fueron reconocidos los servicios prestados por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, en el caso de las ikastolas publificadas. En estos supuestos, bastará con que en la solicitud se haga mención expresa a tales circunstancias, especificándose claramente los períodos respecto de los cuales ya se obtuvo compensación o reconocimiento.

*Artículo 4.*– Medios de prueba.

1.– Puede probarse la impartición de la enseñanza en euskera de las disciplinas académicas por cualquier medio admitido en derecho, como puede ser cualquiera de los medios siguientes:

a) La declaración de dos testigos, siempre que se trate de alumnos o alumnas que asistieron a las clases alegadas como impartidas o de madres, padres, tutoras o tutores de los mismos.

b) La declaración de quien ostentase la propiedad del local o lugar en que se impartió la enseñanza, o de quien la promovió, organizó o gestionó, siempre que tal circunstancia resulte indubitada.

c) En los supuestos no regulados en el apartado 3 del artículo 3 de este Decreto, acreditación de que le fueron reconocidos, como años de servicios prestados, por el titular del centro los servicios cuya certificación pretende que se le expida.

d) Cuando la propiedad de dicho local o lugar fuese ostentada por la Iglesia Católica u otra persona jurídi-

kal horren administrazioaren arduradunaren edo kurtsoa eman zenean irakaskuntzaren tutorearen deklarazioa.

e) Irakatsi eman izanaren ondorioz administrazio-zigorra ezarri izanaren, atxilotu izanaren edo polizien aurrean deklaratu behar izanaren egiaztagiria.

2.– Ikastaroak eman direla frogatzeko, Dekretu hau indarrean sartu aurretik argitara emandako edo erregistratutako zientzia- edo kultur ikerketetan sartuta daudela jasota geratu behar da.

3.– Aurreko ataletan adierazitako bitartekoak nahiko izan daitezen, espedientean eskura dauden guztiek bat etorri beharko dute.

*5. artikulua.*– Ziurtagiria lortzen duten pertsonen laguntza.

Ziurtagiria eskatzen dutenek, eskuratzeko, Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak horretarako eskatzen dien laguntza eman beharko dute. Ziurtagiria eskatzen dutenek laguntza eman ezean, agian ez da eskatutako ziurtagiria emango.

*6. artikulua.*– Eskuduntzak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzari dagokio ziurtagiria emateko prozedura tramitatu eta aurrera eramatea eta, Zuzendaritza honen proposamenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuetarako sailburuordeak emango du ziurtagiria.

*7. artikulua.*– Datuen fitxategia.

1.– Fitxategi bat sortuko da Dekretu honetan arautukako ziurtagiria eskatzen dutenen datu pertsonalekin, eskaera-ereduan sartuko dira, bakar-bakarrik Dekretu honen helburua betetzeko balioko duena.

2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza izango da artikulu honetan sortutako fitxategiaz arduratuko den organoa.

3.– Ondorengoak izango dira fitxategiaren oinarrizko egitura eta berorri gehituko zaizkion datu pertsonalak:

a) Ziurtagiria eskatzen duenaren identifikazio-datuak:

– Izen-deiturak.

– Jaiotze-data.

– Irakaskuntza hori eman zuenean zuen helbidea.

– Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia.

– Nortasun agiri nazionalaren zenbakia.

– Telefonoa.

ca, será suficiente la declaración del responsable de la administración de dicho local o lugar, o de la tutela de la enseñanza, durante la impartición del curso.

e) El documento acreditativo de la imposición de sanción administrativa, de la detención o del sometimiento a declaración policial, como consecuencia de la impartición de la enseñanza.

2.– Se presume la impartición de cursos cuando conste su inclusión en investigaciones científicas o culturales publicadas o registradas con anterioridad a la entrada en vigor del presente Decreto.

3.– Para que los medios señalados en los apartados anteriores se consideren suficientes habrán de ser concordantes todos los disponibles en el expediente.

*Artículo 5.*– Colaboración de las personas que obtengan la certificación.

Los solicitantes de certificación deberán, para su obtención, prestar la colaboración que a dichos efectos les requiera la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico. La falta de colaboración por parte de los solicitantes de certificación podrá determinar la no expedición de la certificación solicitada.

*Artículo 6.*– Competencias.

La tramitación e instrucción del procedimiento de expedición de la certificación corresponderá a la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico del Departamento de Educación, Universidades e Investigación y la expedición del mismo, a propuesta de ésta, se realizará por el Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

*Artículo 7.*– Fichero de datos.

1.– Se crea un fichero con los datos personales de quienes soliciten la certificación regulada en este Decreto, incorporados en el modelo de solicitud, que servirá única y exclusivamente para dar cumplimiento al objeto de este Decreto.

2.– La Dirección de Estudios y Régimen Jurídico del Departamento de Educación, Universidades e Investigación será el órgano responsable del fichero creado en este artículo.

3.– La estructura básica del fichero, así como los datos de carácter personal que se incorporarán al mismo serán los siguientes:

a) Datos de carácter identificativo de quien solicita la certificación:

– Nombre y apellidos.

– Fecha de nacimiento.

– Dirección de la residencia durante la impartición.

– Número de afiliación a la Seguridad Social.

– Número del Documento Nacional de Identidad.

– Teléfono.

– Harremanetan jartzeko helbidea.

b) 1978ko abenduaren 29ra arte euskaraz emandako irakaskuntza-aldia:

– Urteak edo ikasturteak.

– Irakaskuntza eman zen tokiaren helbidea.

– Irakaskuntza eman zen lekuaren edo lokalaren jabea edo irakaskuntza hori gauzatu izanaren arduraduna.

– Irakaskuntza hori eman izanaren frogak.

4.– Estatuko Administrazioari eman ahal izango zaizkio artikulu honetan sortutako fitxategian dauden datuak, egindako lana aitor dezan eta horrengatik dirulaguntzak edo konpentsazioak eman ditzan. Halaber, datu horiek irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei eman ahal izango zaizkie, interesatuak aldez aurretik oniritzia eman ondoren.

5.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzan gauzatuko dira artikulu honen babesean sor daitezkeen datuen fitxategietan dauden datuetara iristeko, zuzentzeko, ixteko eta haiei kontra egiteko eskubideak.

6.– Titulu honen babesean sortzen diren datuen fitxategietan hartu beharreko segurtasun-neurriak tartekoak izango dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren aginduaren bidez aldatu ahal izango da datuen fitxategia sortzen den 7. artikuluaren edukia.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko urriaren 9an.

Jaurlaritzaren Lehendakariordea,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

– Dirección a efectos de notificación.

b) Período de la docencia impartida en euskera hasta el 29 de diciembre de 1978:

– Años o cursos académicos.

– Dirección del lugar de impartición de la enseñanza.

– Propietario/a del lugar o local de impartición o responsable de la impartición.

– Pruebas de la impartición.

4.– Los datos contenidos en el fichero creado en este artículo podrán ser cedidos a la Administración del Estado para fines de reconocimiento y de otorgamiento de ayudas o compensaciones por la labor realizada. Asimismo, dichos datos podrán ser cedidos, previo consentimiento del interesado, a entidades privadas sin ánimo de lucro.

5.– Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición a los datos contenidos en los ficheros de datos que, en su caso, puedan crearse al amparo de este artículo se ejercitarán ante la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

6.– Las medidas de seguridad a adoptar en los ficheros de datos que se creen al amparo de este título serán las correspondientes al nivel medio.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

La modificación del contenido del artículo 7 en el que se crea el fichero de datos podrá realizarse mediante Orden del Consejero de Universidades e Investigación.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 9 de octubre de 2007.

La Vicepresidenta del Gobierno,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

# ERANSKINA

Eskaera-eredua

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO
ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETARAKO SAILBURUORDE JAUNARI.

A) ESKATZAILEA:

Deiturak: ..........................................................................................................................................................................

Izena: ...............................................................................................................................................................................

NAN: .......................................................................

Telefonoa: .................................................................

Harremanetarako helbidea:

Kalea:...................................................................................................................................... zk.a............ estaia:........

Posta-kodea ...............................................................

Herria: .....................................................................

Jaiotze-data: .............................................................

Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia: ...........................................

Pentsioduna den adierazi:

Bai ☐ Ez ☐

B). EUSKARAZ EMANDAKO IRAKASKUNTZAK:
(1978ko abenduaren 29a baino lehenago)

| Ikasturtetik | Ikasturtera arte | Irakaskuntza ematen zen tokia: helbidea, herria, etab… | Lokalaren jabea edo arduraduna |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

Garai hartan bizi zinen udalerria aipa ezazu, irakatsi zenuena ez bada:

Aipa itzazu 1978ko abenduaren 29ra arte edozein gizarte-asegurutan edo Gizarte Segurantzaren erregimenetan altan egon zinen aldiak.

Aipa itzazu aldi hartan, irakaskuntzarekin batera, ari izan zinen ekonomi, enpresa-, lanbide-, erlijio- edo beste edozein motatako jarduerak:

C) ARGUDIATUTAKO FROGAK:

C.1.– Erakusten dituen agiriak.

Eskatzailearen nortasun-agiri nazionalaren kopia.

Irakaslearen Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakiaren egiaztagiria/egiaztagiri hori ez izanaren Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria.

Ikastetxearen titularrak emandako zerbitzuen aitortza egiaztatzen duen agiria.

Beste agiri batzuk:

C.2.– Lekukoak:

Gutxienez, izen-deiturek, helbide osoak eta loturak (ikaslea, aita edo ama...) agertu beharko dute. Ahal bada, telefonoa, NAN edo beste identifikazio-datu batzuk erantsi.

C.3.– Agertzen den argitalpenak:

Titulua, argitaletxea, urtea, ISBN... Ahal bada, behar diren orrien kopia gaineratu.

D) IKASTOLETAN EMANDAKO ALDIAK ETA KONPENTSAZIO- EDO AITORTZA-ALDIAK HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAK KONPENTSATU EDO AITORTU IZANAREN ADIERAZPENA.

E) OHARRAK:

Hemen edo aparteko orrian adieraz ezazu beste edozein datu edo komentario.

F) ZINPEKO EDO AGINDUPEKO AITORTZA ETA ESKAERA:

Eskaera honetan agertzen diren datu guztiak egiazkoak eta zehatzak direla zinpean edo agindupean (ez dagokiona ezabatu) adierazten dut.

Horregatik guztiarengatik, urriaren 9ko 172/2007 Dekretuaren, 1978ko abenduaren 29a baino lehenago euskaraz aurrera eramandako irakaskuntza-jardueraren eta gauzatu zen aldien egiaztagiriak arautzen dituenaren, bidez araututako ziurtagiriak ematea ESKATZEN DUT, Gizarte Segurantzari kotizatutakotzat aitor daitezen.

Tokia, data eta sinadura

Izpta.

15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, xedatzen duena betez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuetarako sailburuordeak jakinarazten dizu fitxategi automatiko batean tratatzeko gehituko direla agiri/eredu/eskaera hau betez lortu diren zure datu pertsonalak.

Nahi izanez gero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzan gauzatu ahal dituzu datu horietara iristeko, zuzentzeko, ixteko eta kontra egoteko Legeak agertzen dituen eskubideak: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

## *ANEXO AL DECRETO 172/2007, DE 9 DE OCTUBRE*

*Modelo de Solicitud*

*AL ILMO. SR. VICECONSEJERO DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN*

*A) SOLICITANTE:*

*Apellidos:* ..........................................................................................................................................................................

*Nombre:* ..........................................................................................................................................................................

*DNI:* ..................................................................................

*Teléfono:* ............................................................................

*Dirección a efectos de notificación:*

*c/* ................................................................................. *n.º* ....... *piso:*........

*Código postal*...................................... *Localidad*...................................................................................................................

*Fecha de nacimiento:*..............................................................

*Número de afiliación a la Seguridad Social:* .........................................

*Indicar si es pensionista:*

*Sí* ☐ *No* ☐

*B) CURSOS DE ENSEÑANZA EN EUSKERA IMPARTIDOS:*
*(con anterioridad al 29 de diciembre de 1978)*

| *Desde el curso:* | *Hasta el curso:* | *Lugar en el que se impartía la enseñanza, dirección, localidad, etc* | *Persona propietaria o responsable del lugar* |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

*Señale el municipio de residencia en aquél tiempo, si fue distinto del de impartición de la enseñanza:*

*Señale los períodos en que estuvo de alta, hasta el 29 de diciembre de 1978, en cualquier Seguro Social o régimen de Seguridad Social:*

*Señale las ocupaciones económicas, empresariales, profesionales, religiosas o de otro tipo que mantuvo en aquél tiempo simultáneamente con la enseñanza alegada:*

*C) PRUEBAS ALEGADAS:*

*C.1.– Documentos que acompaña:*

*Copia del Documento Nacional de Identidad del solicitante.*

*Documento que acredite el número de afiliación a la Seguridad Social del enseñante / certificación de la Tesorería General de la Seguridad Social de no poseerlo (táchese lo que no proceda).*

*Documento que acredite el reconocimiento de los servicios prestados por el titular del centro.*

*Otros documentos:*

*C.2.– Testigos:*

*Deberán figurar al menos apellidos y nombre, dirección completa y vinculación (alumno o alumna, padre o madre …). Si es posible, añadir igualmente teléfono, DNI u otros datos identificativos.*

*C.3.– Publicaciones en las que aparece:*

*Título, editorial, año, ISBN… Si es posible acompañe copia de las páginas correspondientes.*

*D) INDICACIÓN DE HABER OBTENIDO COMPENSACIÓN O TENER RECONOCIDOS POR EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN LOS SERVICIOS PRESTADOS EN IKASTOLAS, Y LOS PERIODOS DE COMPENSACIÓN O RECONOCIMIENTO:*

*E) NOTAS:*

*Señale aquí, o en hoja aparte, cualquier otro dato o comentario que desee.*

*F) DECLARACIÓN JURADA O BAJO PROMESA Y SOLICITUD:*

*Declaro bajo juramento / promesa (táchese lo que no proceda) que todos los datos que aparecen en esta solicitud son ciertos y exactos.*

*Por todo lo cual, SOLICITO la expedición de la certificación regulada mediante Decreto 172/2007, de 9 de octubre, de regulación de la certificación acreditativa del ejercicio de la actividad docente en euskera y de los periodos en que se desarrolló, anteriormente a 29 de diciembre de 1978, a efectos de ser reconocidos como cotizados a la Seguridad Social.*

*Lugar, fecha y firma*

*Fdo.*

*En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento/modelo/solicitud, van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado.*

*Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, ante la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico del Departamento de Educación, Universidades e Investigación: calle Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.*